

### **2011ko EPE: GAINDITU DUTENEN ZERRENDARI BURUZKO INFORMAZIOA:**

2011ko uztailaren 27ko EHAAAn, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpena argitaratu zen, hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri orokorrak onartzen dituen.

2011ko EPE webean, 2012ko irailaren 24an, hurrengo kategorietako oposaketa-fasea gainditu dutenen zerrenden ebapenak argitaratu dira:

F.E. ANATOMIA PATOLOGIKOKO MEDIKUA
F.E. ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETAKO MEDIKUA
F.E. ANGILOGIA ETA HODIOTETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA
F.E. APARATO DIGESTIBOKO MEDIKUA
F.E. KARDIOLOGIAKO MEDIKUA
F.E. KIR. ORTOP. ETA TRAUMATOLOGIAKO MEDIKUA.
F.E. KIRURGIA KARDIOBASKULARRAKO MEDIKUA
F.E. KIR. OROKORRA. ETA AP. DIGESTIBOKO MEDIKUA
F.E. AHO ETA AURPEGI MASAILAETAKO KIR.MEDIKUA
F.E.. PEDIATRIA KIRURGIKOKO MEDIKUA
F.E. TORAXEKO KIRURGIAKO MEDIKUA
F.E. DERMATOLOGIA, KIRURGIA ETA BENERELOGIAKO MEDIKUA.
F.E. HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIAKO MEDIKUA
F.E. ETXEKO OSPITALIZAZIOAKO MEDIKUA
F.E. PREB ETA OSASUN PUBLIKOKO MEDIKUA
F.E. MEDIKUNTZA INTENSIBOKO MEDIKUA
F.E. BARNE MEDIKUNTZAKO MEDIKUA
F.E. MEDIKUNTZA NUKLEARREKO MEDIKUA
F.E. NEFROLOGIAKO MEDIKUA
F.E. OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA
F.E. OFTALMOLOGIAKO MEDIKUA
F.E. ONKOLOGIA MEDIKOKO MEDIKUA
F.E. ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKO MEDIKUA
F.E. PEDIATRAKO MEDIKUA-LMT
F.E. PSIKIATRIAKO MEDIKUA
F.E. HAURREN PSIKIATRIAKO MEDIKUA
F.E. ERRADIODIAGNOSTIKOKO MEDIKUA
F.E. ERREUMATOLOGIAKO MEDIKUA
F.E. OSPITALEKO LARRIALDIETAKO MEDIKUA
F.E. OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO MEDIKU TEKNIKARIA.
F.E. PSIKOLOGO-KLINIKO TEKNIKARIA

Azken ebazpen honetan azaltzen diren **gainditutakoek** 10 egun balioduneko epea izango dute, hau da, **2012ko irailaren 25etik urriaren 5ra**, dagozkien **betekizun eta meritua** alegatzeko,

gaindituen zerrenda onartzen duen ebazpenean eta oinarri orokorretako 12.5 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Era berean, **hauta-proben emaitzei buruzko informazio eguneratua** argitaratu da, kalifikazio-epaimahaiak interesatuek aurkeztutako erreklamazioak errebisatu ondoren: erantzun-txantilo eguneratua eta emaitza eguneratuak.

**2011ko EPEko kontsulta pertsonalizatuen** bidez, gainditutakoek **Osakidetzak dituen datuak** ikusi ahal izango dituzte, ondokoei dagokienez: izan beharreko titulazioa, egindako zerbitzuak, prestakuntza, euskerako hizkuntza eskakizunak,...

**Betekizunak eta merituak alegatzeko prozesua** errazteko, hurrengo **informazio eta dokumentazioa** argitaratu da 2011ko EPEko oharren atalean:

- **Prozeduraren laburpen-koadroa**, betekizun eta meritu ezberdinak egiaztatzeko modua adierazten duena.
- Betekizunak eta merituak alegatu eta mekanizatzeko **jarraibideak**. Arreta berezia jarri behar zaio izan beharreko titulazio akademikoaren atala betetzeari.
- **Betekizunak eta merituak egiaztatzen dituen dokumentua**, gainditutako izangai guztiek bete, erregistratu eta epearen barruan entregatu beharko dutena.

**Erreklamazio-eredua**, interesatuek Osakidetza eskaintako datuen aldaketa eskatzeko, beraiekin ados ez egoteagatik. Beste Administrazio Publikoetako esperientziari dagokionez, egindako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria entregatu beharko da, edo notarioak egindako kopia kautoa.

**Osakidetzan egindako zerbitzuak beste kategoria/lanpostu funtzional batera lotzeko dokumentua**, oinarri orokorretako 13.1.1 oinarrian aurreikusitako kasuetan.

**Egindako zerbitzuak egiaztatzeko eredua**, beste Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak alegatzen diren kasuetan.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko irailaren 24an.